

Familia agurgarriak:

Iritsi da Kilometroak 23 urte luze bateko lanaren bukaera jaia: urriaren 1ean, Orereta ikastolaren eskutik, egun handia antolatu dute Orereta-Erreterian. Kilometroak Urteari Kilometroak Egunak emango dio amaiera eta jarriko dio ginda. Festaz gozatu nahi duen orok atea zabalik izango ditu bertan.

Hona hemen hainbat xehetasun:

**EGITARAUA:** [kilometroak.eus](http://kilometroak.eus) webgunea erabat eguneratu da Kilometroak Eguneko xehetasun guzti-guztiak esku-eskura izateko. Egitaraua eta plana bertan dituzue ikusgai.

**JANTOKIA:** Batean eta bestean izango diren ogitarteko, talo, pintxo eta bestelakoez gain, eserita ederki bazkaltzeko modua ere izango da, Fernandez De Landa plazako aterpean jarriko dugun jantokian (Koldo Mitxelena ikastetxea). Bazkarirako txartelak [kilometroak.eus](http://kilometroak.eus) webgunean eros daitezke. Egunean bertan jantokian ere eskuragarri izango dira.

**BOLUNTARIOAK:** urriaren 1eko festa gauzatzeko ezinbestekoa dugu Orereta Ikastolako komunitate osoaren ekarpena. Horrez gain, egunaren dimentsioak hortik harago joatera garamatzanez, Gipuzkoako Ikastolen komunitate osoari zabaldu nahi diogu laguntza deialdia. Beraz, anima zaitetz boluntario gisa lagundu eta gozatzera! [Hemen](#) eman dezakezu izena.

**IRISGARRITASUNA:** Kilometroak Eguna garraio publikoan joatea gomendatzen da. Garraio publikoz etorri ezin dutenentzako, bi aparkaleku nagusi jarriko dira:

- Pasaiaiko Portua (koordenatuak 43.31966675139468, -1.9033785858643517)
- Txirrita-Maleo industrialdea (koordenatuak 43.30551131738846, -1.9090532596819616)

Autokarabanentzako gunea ere izango da Agustinak auzoan (koordenatuak 43.30718087520547, -1.897500817369414)

Ederra izango da festa eta eguna, goza dezagun elkarrekin errespetuz eta jator.

Anima zaitetzte!

Besterik gabe, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Ikastolako idazkaritza